



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

25097 - Erakundeen eta Lanaren Psikologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honek honako helburuak ditu:

- Ikasleak Erakundeen eta Lanaren Psikologiaren oinarri teoriko eta metodologikoak ulertu eta aztertzea eta horiei buruz gogoeta egitea.
- Ikasleak bere garapen pertsonal eta profesionalerako erakargarrien iruditzen zaizkion alderdiak bakarka garatu ahal izateko adina argibide eta trebetasun eskuratzea, diziplina honen esku hartze lan desberdinak eta ikertzeko aukerak ezagutzuz.
- Gizakiak lanean duen erabateko garrantziaren inguruan sentsibilizatu, eta honek nola erraztu edo oztopatzen duen erakundeen eraginkortasuna ulertu. Giza- faktorea ez da enpresaren faktore bat, enpresa bera baizik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- Erakundeen alorreko esku-hartze ereduak, ikerketa lerroak eta teoria nagusiak ezagutzea.
- Erakundeen prozesu psikosozialak, dinamika , egituraren oinarritzko ezaugarriak eta oinarriak eta marko legala ezagutzea.
- Antolakuntza eredu desberdinak era kritikoaz aztertze gaitasuna izatea.
- Txosten bat egiteko eta erakundeen antolakuntza ebaluatze tresnak eta teknikak erabiltze gaitasuna izatea.
- Lan ongizatean eta errendimenduan eragiten duten faktoreak identifikatzea.
- Lan arriskuak prebenitzera bideratutako estrategia nagusiak ezagutzea.
- Informazio zehatza sintetizatu, aztertu eta bilatzeko gaitasuna izatea eta ikus-entzunezkoen baliatuz, kasu eta ariketak aztertze gaitasuna izatea, ateratako ondorioak azalduz eta defendatuz.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- Blokea: Erakundeen eta Lanaren Psikologia: hurbilpena
 - Gaia: Erakundeen eta Lanaren Psikologia: Mugaketa kontzeptuala
 - Gaia: Erakunde motak eta paradigmak.
- Blokea: Lanaren Psikologia: Antolakuntza eta Motibazioa
 - Gaia: Lanaren oinarritzko elementuak.
 - Gaia: Motibazioa.
- Blokea: Erakundeen Psikologia: Prozesuak.
 - Gaia: Kultura, berrikuntza eta aldaketa.
 - Gaia: Lidergoa, erabaki hartzea eta boterea.
 - Gaia: Komunikazioa eta gatazkaren kudeaketa.
- Blokea: Giza Baliabideen Psikologia
 - Gaia: Giza Baliabideen garapena: osasun laborala (ongizatea, estresa, ergonomia eta arrisku psikosozialak)

METODOLOGIA

Irakasleak A edo B modalitatea aukeratu eta proposa dezake.

METODOLOGIA – A AUKERA

Irakasgai honetan taldeko lan teoriko-praktiko bat eta banakako praktika (kasu praktiko bat) egingo dira, baita ikasgelan hainbat ariketa ere. Lanaren helburuak dira ezagutza teorikoa sakontzea eta ezagutza hori praktikara gerturatzea. Banakako praktikaren helburuak dira hainbat egoera aurkeztea eta lanbidearen errealitatera gerturatzea, kasuen analisiaren bidez, besteak beste. Prestakuntza bera bideratzeko eta jarraipena egiteko, tailerren, mintegien eta ordenagailu bidezko praktiken laguntza izango da.

TALDEKO LAN TEORIKO-PRAKTIKOA (azken kalifikazioan 2 puntu gehienez)

Lanak egiteko jarraitu beharreko arau nagusiak honako hauek dira:

- Lana eta praktikak egiteko, asko jota, 4 lagunek osatutako taldeak egingo dira.
- Talde bakoitzak gomendatutako oinarritzko materialak irakurriko ditu.
- Talde bakoitzak tutoretzan argitu ahal izango ditu zalantzak, eta proposamenaren diseinua eta helburuak azalduko dizkio tutoreari.
- Irakasleak ezarritako egituraren arabera osatu beharko dira lanak.
- Proposamena amaituta dagoenean, irakasleari aurkeztuko zaio. Ikasleek azalpena egingo dute taldean.



Proposamenaren azken kalifikazioan aurkezpena eta defentsa kontuan hartuko dira.

BANAKAKO PRAKTIKAK (azken kalifikazioan 2 puntu gehienez)

Bakarra izango da (ikasgelan bertan banatu eta aurkeztuko da). Honako urrats hauek emango dira:

1. Praktika ematea, aurkeztea eta kontzeptuak argitzea.
2. Informazioa bilatzea.
3. Iturriak eta informazioaren egokitasuna aztertzea.
4. Ekintzak edo esku hartzeko proposamenak garatzea.
5. Dokumentua ematea, emaitzak aurkeztea eta eztabaida.

IKASGELAKO PRAKTIKAK (azken kalifikazioan 2 puntu gehienez)

Gainera, ikasgelako praktiken barruan 4 edo 5 jarduera eta ariketa egingo dira, irakasgaiarekin, lan teoriko-praktikoarekin, banakako praktikekin eta ikerketarekin lotura dutenak.

METODOLOGIA – B AUKERA

Metodologiaren A aukeran deskribatutako jardueri eutsita, prestakuntza ibilbidearen metodologia aplikatu ahal izango dute irakasleek. Horretarako, EUROPSY ziurtagiriaren esparruan sortutako 5 ibilbideetako bat aukeratu ahal izango dute. European Federation of Psychologists’ Association [EFPA] erakundea Europako herrialdeetako Psikologia elkarteen elkargune eta burua da, eta erakundeak berak emandako ziurtagiri multzoa da EUROPSY, Psikologiaren arloan hezkuntza eta praktikaren kalitatea neurtzeko Europako erreferentea.

1. LANEKO OSASUNA: ERGONOMIA, LANERAKO SISTEMAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK, LANEKO OSASUNA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.
2. LANA: AHOLKULARITZA, ORIENTAZIOA, MERKATU AZTERKETA, LAN BITARTEKARITZA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA.
3. ERAKUNDEEN GARAPENA: ERAKUNDEEN KALITATEA, ALDAKETA, GARAPENA ETA ERALDAKETA.
4. GIZA BALIABIDEAK: LAN HARREMANAK, BITARTEKARITZA, GATAZKEN KUDEAKETA, GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA, ETA PERTSONEN ETA GIZA KAPITALAREN NAHIZ KAPITAL SOZIALAREN GARAPENA ERAKUNDEAN.
5. MARKETINA: PUBLIZITATEA, KONTSUMITZAILEEN JOKABIDEA, POSIZIONAMENDUA ETA MERKATU AZTERKETA, INFORMAZIO KANPAINAK, ETA MERKATARITZA NAHIZ SALMENTEKIN LOTURA DUTEN BESTE AZTERKETA BATZUK.

"Etengabeko ebaluazioa" aukeratzen dutenek, prestakuntza ibilbide teoriko-praktiko osoa egingo dute, ikasleek gaiaren oinarriko printzipioak nahiz hautatutako ibilbidearen oinarriak bereganatzen dituela ziurtatze aldera.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	7	11		1		9		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	10,5	16,5		1,5		13,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 40
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Matrikulatu gabe ezin da irakasgaiaren parte hartu.

Eskolen lehenengo astean, irakasleek lanak emateko epeak eta aurkezpenen egutegi zehatza azalduko dituzte.

Etengabeko ebaluazioa hautatzen dutenek bi arloak egin beharko dituzte: teoria eta praktikak.



Atal teorikoa azken kalifikazioaren % 40 izango da (lau puntu hamarretik). Atala gainditzeko, test erako azken azterketa egin ahal izango dute ikasleek, edota etengabeko ebaluazioari dagozkion jarduerak bete. Irakasleak aplikatu nahi duen modalitatea aukeratu edo proposatuko du. Azterketaren kasuan, ikasleak azken azterketa ofizial bakarria egingo dute. Azken urteetan azterketa hori test erakoa izan da; 30 eta 40 galdera inguru izan ditu, eta oker erantzundako galderei kenketa aplikatu zaie. Dena den, irakasle bakoitzak ezarriko du azterketaren galdera kopuru zehatza. Irakasleak honako aukera hauen artean hautatuko du: (1) test erako azterketa (gehienez, 4 puntu) oker erantzundako galderei kenketa aplikatuta; edo (2) azterketa teoriko mistoa, test erako galderak (gehienez, 3 puntu), oker erantzundako galderei kenketa aplikatuta, eta galdera irekiak (gehienez, puntu 1) barne hartzen dituena. Irakasleak lauhilekoaren hasieran jakinaraziko du zein ebaluazio mota aukeratu duen.

UPV/EHUko Ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloak ezarri legez, ebaluazio proban edo azterketan ikasleek ezin izango dituzte liburuak, oharrak edo apunteak erabili, ezta tresna edo gailu telefonikoak, elektronikoak, informatikoak edo bestelakoak ere. Lauhilekoaren lehenengo astean, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko Protokoloa gogoraraziko zaie ikasleei, eta eGelan jarriko da eskuragarri, irakasgaiari dagokion moduluan.

Hala eta guztiz ere, baliteke irakasleak eduki teorikoak ebaluatzeko bestelako modalitate bat hautatzea eta, azterketarik egin gabe (ez partzialik ez azken azterketarik), ikasleek lanak aurkeztuz irakasgaia gainditu ahal izatea. Horrelakoetan, eskolen lehenengo astean, irakasgaiaren programaren aurkezpena egiten duenean, zehaztu beharko du irakasleak zein ebaluazio modalitate erabiliko den; eta, kasu honetan, beharrezkoa den gutxienez zatia gaindituz gero (nota teorikoaren % 50), ikasleak azken azterketa teorikoa egitetik salbuetsita egongo dira. Edonola ere, irakasleak berak erabakiko du azken azterketa egin edo teoria ebaluatzeko bestelako aukera bat ezartzea, eta halaxe jakinaraziko du eskolen lehen astean, irakasgaiaren programa aurkeztearekin batera.

Praktiken kalifikazioa (talde lan teoriko-praktikoa, banakako lan praktikoa, eta ikasgelako praktikak) irakasgaiaren emaitza osoaren % 60 izango da (sei puntu hamarretik).

Irakasgaia gainditzeko, ezinbestekoa da gutxienez puntuazio osoaren % 50 gainditzea, bai azterketan edo atal teorikoan, bai talde lan teoriko-praktikoan, bai banakako praktketan, bai ikasgelako praktketan.

Kalifikazioen egoera: etengabeko ebaluazio prozesuan (azken azterketarena ez den modalitatean) atal praktikoa edo atal teorikoa soilik gainditu eta bestea suspenditu dutenei lortutako nota gordeko zaie, harik eta ekaineko azterketa egin arte. Hortaz, gainditu gabeko atalaren azterketa soilik errepikatu beharko dute (teoria ala praktika). Ekaineko azterketan atal bietako bat berriz ere suspendituz gero, irakasgai osoa suspendituko da, hurrengo deialdiarako notarik gorde gabe.

Praktikak ez egitea eta eskoletara ez joatea erabakitzen dutenek irakasgai osoari dagokion azterketa teoriko-praktikoa egin beharko dute deialdi ofizialean. Ezinbestekoa izango da bi atalak gainditzea: teoria (test motako azterketa) eta praktika (kasu baten garapena).

DEIALDIARI UKO EGITEA: Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 12.2 artikuluan jasotzen denez, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioan % 40 baino handiagoa bada (irakasgai honen kasuan bezala), ikasleek deialdiari uko egin ahal izango diote kasuan kasuko irakasgaia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. Araudian jaso legez, egoera horren berri eman ez eta azterketa edo proba aurkezten ez denari "gainditu gabe" kalifikazioa jarriko zaio.

Gida honen edukiari bere horretan helduko zaio aurrez aurreko irakaskuntza bideragarria baldin bada. COVID-19aren ondorioz ezinezkoa balitz, ordea, ebaluazio modalitatea egokituko da, OHARRAK atalean zehazten den bezalaxe.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Kalifikazioen egoera: etengabeko ebaluaketa prozesuan praktikak (eta baita teoria ere, irakasleak aukeratu badu modalitate alternatiboa teoria ebaluatzeko) gainditu dituztenei bakarrik gordetzen zaie nota ikasturtearen barruan, hau da ekaineko azterketa arte. Gainditu gabeko zatia egin beharko lukete ekaineko azterketan (teoria ala praktika). Berriz ere suspendituko balute, ikasgai osoa geratuko litzateke hurrengo ikasturterako. Praktikak ez egitea eta eskoletara ez joatea erabakitzen duenak deialdi ofizialean egingo den azterketa teoriko-praktikoa egin beharko du. Bi zatiak gainditzea beharrezkoa izango da: teoria (test motako azterketa) eta praktika (kasu baten garapena). (Aurrez aurreko irakaskuntza eta irakaskuntza on-line uztartu beharko balira, ikusi OHARRAK bukaeran).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Apunteak, manualak, irakurketak, kasu praktikak eta gelan edota plataforma birtualen bitartez eskainiko den dokumentazioa.



BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- •Alcover de la Hera, C.M. (2004). Introducción a la Psicología del Trabajo. Madrid: McGraw Hill.
- •Arnosó, A. (2011). Lanean eta erakundean ematen diren prozesu psikosozialak: banakoak eta taldeak eragile gisa. Psikologia Fakultatea (apunteen liburua). Donostia.
- •Del Corte, T.; Apodaka, E.; Zabaleta O. (2007). Lan giroko harremanak. Erroteta. Bilbo.
- •Gil-Monte, Pedro R. (Coord.) (2014). Manual de Psicología Aplicada al Trabajo y a la Prevención de los Riesgos Laborales". Pirámide. Madrid.
- •Muchinsky, P.M. (2000). Psicología del Trabajo. Comportamiento organizacional. Madrid: Paraninfo.
- •Ordoñez, M. (1997). Psicología del Trabajo y Gestión de Recursos Humanos. Barcelona: Gestión 2000.
- •Peiró, JM (1995). Psicología de la Organización (I y II). UNED. Madrid.
- •Peiró, J y Prieto, F. (1996). Tratado de Psicología del Trabajo (I y II). Madrid. Síntesis.
- •Peiró, JM y Ramos, J (1994). Intervención Psicosocial en las Organizaciones. PPU. Madrid.
- •Quijano, S. (1987). Introducción a la Psicología de las Organizaciones. Barcelona: PPU.
- •Quintanilla, I. (1993). Teoría, Aplicaciones y Práctica de la Psicología del Trabajo. Valencia: Promolibro.
- •Robbins, S. (1996). Comportamiento Organizacional. Madrid: Prentice Hall.
- •Rodríguez, A. eta Zarco, V. (2008). Psicología de las Organizaciones: marco conceptual, epistemológico y metodológico. Madrid. Pirámide.
- •Salgado, JF (1997). Comportamiento Organizacional. TORCULO Ediciones. Vigo.
- •Weinert, A.B. (1985). Manual de Psicología de la Organización. Barcelona: Herder.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- •Agulló, E et al. (2000). Psicología del Trabajo, de las Organizaciones y de los RRHH. Madrid: Biblioteca Nueva.
- •Anderson, N et al. (Eds) (2002). Handbook of industrial, work and organizational psychology. Thousand Oaks, CA: Sage.
- •DRENTH, P et al. (1984). Handbook of Work and Organizational Psychology. Wiley
- •Dunnette, M.D. y Hough, L.M. (Coed.). (1990-94). Handbook of Industrial and Organizational Psychology ,4 Vol.. Palo Alto: Consulting Psychologist.
- •Haslam, SA (2001). Psychology in Organizations. The Social Identity Approach. London: Sage
- •Katz, D. y Khan, R. (1977). Psicología social de las organizaciones. México: Trillas.
- •Korman, A. (1987). Psicología de la industria y de las organizaciones. Madrid: Marova.
- •McKenna, E. (1994). Business psychology and organisational behaviour. Hove: Lawrence Erlbaum.
- •Munduate, L. (1997). Psicología Social de la Organización. Madrid: Pirámide
- •Robbins, S. (1996). Comportamiento organizacional. Madrid: Prentice Hall.

Aldizkariak

- Capital Humano.
- Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones.
- UZTARO
- ELHUYAR
- Soziolingusitika Aldizkaria

Interneteko helbide interesgarriak

- COP
- EAWOP
- ENOP
- OSHA.EUROPA.EU

OHARRAK

IRAKASKUNTZA KONBINATUA (on-line eta aurrez - aurrekoa): teoriaren kasuan %50a etengabeko ebaluazio sistemaren bidez bideratu ahal izango da (4 puntutik 2) eta praktikak moldatuko dira bakarrik hauek birtualak balira. Teoriaren gainontzeko %50a test motako azterketa BIRTUAL bidez ebaluatuko da, ebaluazio eta kenketa irizpideak ohiko gidan bezala aplikatuz (aurrez aurreko baldintzatan aplikatuko liratekeenak). Azterketa praktikoa bakarrik egin beharko lukete etengabeko ebaluazioa gaintu ez dutenek edo berau osatu ez dutenek. Azterketa praktikoa hau test motako azterketa bidez do kasuak garatuz egingo da. Azterketa irizpide berdinak aplikatuko lirateke ez ohiko deialdian.